

Euskararen posizioa



Mikel Irizar

HIZKUNTZA
BERDINTASUNeko
ZUZENDARIA,
GIPUZKOAKO FORU
ALDUNDIAN

Euskal soziolinguistikaren antologiarako geratu da Kike Amonarrizen kale inkesta euskararen tamainaz: gehienek oso txiki ikusten zutena, munduko hizkuntzen goiko tropelean dabil, zailtasun artean duin.

Beste horrenbeste esan liteke 2016ko Donostiako hizkuntza aniztasunaren foroak azaleratu duenaz: hizkuntza gutxituen artean euskara da hedatzen –hau da, hiztunak eta espazioak irabazten– ari den bakarretakoa.

Beldur handiegia izan diogu euskararen egoeraren alde baikorrak azpimarratzeari, horrekin hizkuntzaren aldeko afana galtzeko –edo, zenbait zat okerrago, inori dominaren bat oparitzeko– arriskua balego bezala.

Baina egia da; munduko hizkuntza gutxituen artean euskara erreferentzia bat da, batez ere EAEn izan duen biziberritzea dela eta. Posizio honek bi emozio eragin beharko lizkiguke: alde batetik, harrotasuna, lortutakoa ez bata inoren opari izan, gizarte ekimenaren eta erakundeen ahalmenaren ondorio baikik, lan on askoren fruitu ederra; bigarren emozioa, ardura behar genuke, euskararen herri osoari begira, baita mundu zabalari ere. Kooperazio linguistikoa izenez identifikatzen hasi gara beste hainbat hizkuntza gutxituekin izan dezakegun harremana:

gure eskarmentua haiei eskaini eta trukean haien hizkuntzarekiko pasioaz gu apur bat kutsatu.

Bada beste liga bat ere, asko interesatzen zaiguna: munduko hizkuntza txikiena. Hizkuntza gutxituez gain badira beste batzuk, estatus politikoko sendoagoa dutena, baina hiztun kopuru mugatua. European bertan hainbat dira: nederlandera edo daniera bezala, baltikoak, balkanikoak edo nordikoak. Hizkuntza hauek hiztun komunitate txikia dute, eta igurtzian daude hizkuntza hegemonikoekin, nagusiki ingelesa eta alemana. Hizkuntza txikiekin eskumenetan dugu alde, haiek estatua baitute. Hala ere, haien hainbat estrategia eta eskarmentu balekoak izan dakizkiguke, gurera egokituta. Esaterako, nola jokutzen du ikus-entzunezkoen sektoreak Danimarkan, gazte guztiek ingelesa primeran jakin arren kontsumoa nagusiki danieraz egin dezaten? Zerbait kopiatu dezakegu?

Asko komeni zaigu begirada gure zilborretik altzatzea eta inguru zabalari ere begiratzea, euskararen gaineko analisisen kontrastea egiteko eta besteen eskarmentuak ere baliatzeko. Euskararen posizioa ez da txarrena aukerak aprobetxatzeko; bestalde, guk irabazitako hiztun edo esparru bakoitza garaipen bat da munduko hizkuntza aniztasunaren ikuspegitik. Animo! ■

San Balentin, printzesa eta sorgina



Itziar Bardaji
Goikoetxea
IRAKASLEA

Antza denez, euskal herrietan San Balentinek ez du lortzen errotze ona. Harrotasun osoz azaltzen diegu batzuek besteei kontsumo izaki huts bihurtu nahi gaituztenen trikimailu horietan gu ez garela erortzen eta ez dugula zertan kreditu txartela paseatzera atera gure maitasuna erakusteko. Eguneroko da San Balentin.

Azken hau badugu, ordea, erabat errotua, emakumeok, burmuinaren azken zirrikituraino eta, emozioak nik ez dakit esaten non eratzen diren, baina haraino ere bai. Amodioaren idealizazioak eguneroko bonbardatzen gaitu, gure printzesa eguneroko dugu sorbaldan eserita belarrira matraka eman ta eman.

Printzesak uste du amodioa dela zorientasunerako bide bakarra (eta amatasuna!). Bikotekide ezak porrota auto-estimatu suntsitzaile bihurtzen du eta bakardadea deitzen dio. Infernu beldurgarria. Familia bat zaindu nahi du eta hori lortu nahiz mantentzeko sakrifizioak behar direla dio.

Printzesak karrikatura dirudi eta ez da. Printzesa gure barneko patriarkatua da. Guztiz erreala eta boteretsua. Berak ekiditen du gizarte zapaldu honen iraultza, amodio erromantikoa-ren bidez.

Izan dadila otsailaren 14a, aurrerantzean, gure barne sorginak printzesari zartakoa ematen dion egun nazionala! ■